

**DECRETO Nº 882**  
(P002410)

**ACUERDO:**

Udalbatzak, bi mila eta hamarreko martxoaren hogeita hamaikan, eginiko bilkuran, besteren artean, honako akordioa hartu zuen, A.F.A.ren 206 artikuluaaren salbuespenarekin:

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día treinta y uno de marzo de dos mil diez, adoptó, con la salvedad del Art. 206 del R.O.F., entre otros, el siguiente acuerdo:

**“Gaia: HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRAZTERKETARI dagokion 2007PRPG0001 espedientea.**

**“En relación con el expediente 2007PRPG0001 relativo a REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA.**

**Egitateak:**

**Resultando los siguientes hechos:**

-2008ko azaroaren 20ko Alkatzaren Ebazpenaren bitartez, *HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRAZTERKETAREN Ingurumen-inpaktuaren Aurrerakinaren eta Azterlanaren Dokumentuaren* jendaurreko informazio tramitea egitea erabaki zen. Halaber, *ingurumen-inpaktuaren ebalulazio bateratuko prozedurari dagokion 2008ko urriaren 23ko Ingurumeneko Sailburuordetzaren Ebazpenean* aipatzen diren Administrazio Publikoei kontsultatzea ere erabaki zen. Era berean, *Aurrerakina ondoko udalei bidaltzea jakinaren gainean egon daitezzen eta Ingurumeneko Sailburuordetzari Ingurumen Inpaktuaren Aurretiko Txostena* eskatzea erabaki zen. Azkenean, urtebetez etetea erabaki zen, III. Eranskinean adierazitako eremuetan, orotariko onespentak, baimenak eta lizentziak ematea.

-Mediante Resolución de la Alcaldía de fecha 20 de noviembre de 2008, se acordó exponer al público *el Documento de Avance y el Estudio de Impacto Ambiental de la REVISION DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA de Irun*. Consultar a las Administraciones Públicas referidas en *la Resolución de la Viceconsejería de Medio Ambiente de fecha 23 de octubre de 2008 en relación con el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental*. Asimismo se acordó remitir *el Avance a los Ayuntamientos colindantes para su conocimiento y solicitar de la Viceconsejería de Medio Ambiente, el Informe Preliminar de Impacto Ambiental*.

Finalmente se acordó igualmente suspender por plazo de un año, en los ámbitos señalados en el Anexo III del acuerdo, toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias.

-2008ko azaroaren 28ko datarekin argitaratu zen Gipuzkoako AOean aipatutako erabaki horiek, baita 2008ko abenduaren 9ko 235 zenbakiko EHAOean eta 2008ko azaroaren 27ko Diario Vascon

-Con fechas 28 de noviembre de 2008 aparece publicado en el B. O de Gipuzkoa los citados acuerdos, así como en el B.O.P.V nº 235 de fecha 9 de diciembre de 2008 y Diario Vasco de fecha 27 de

ere.

2009ko otsailaren 2ko Alkatetzaren Ebazpenaren bitartez Aurrerakinaren jendaurreko informazio tramitearen epea 2009ko martxoaren 9ra arte zabaltzea erabaki zen. Erabaki honen iragarkia 2009ko otsailaren 5eko Diario Vascon argitaratu zen. Baita 2009ko otsailaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2009ko otsailaren 36 zenbakiko EHAOean ere.

-Aurrerakinaren jendaurreko erakusketa tramitearen berri eman zitzairen ondoko udalei, eta ez da horri buruzko idazkirik aurkeztu.

-Informazio prozesuarekin batera, hiritarrek parte hartzeko plan bat abian jarri zen. Plana Aurrerakinaren Dokumentuan azaltzen diren proposamenen azalpenean oinarritu zen nagusiki.

#### **Argudioak:**

-Parte hartzearen eta jendaurreko izapidetzaren prozesu hau amaitutakoan, eta hiritarrek aurkeztu dituzten idazkiak aztertuta, proposatzen den Antolamenduaren Irizpideen eta Helburuen arabera, Parte Hartzeari buruzko Txosten bat egin da, aurkeztu diren iradokizunen trataerari buruzkoa, zeina espedientean sartu baita eta akordioaren proposamenaren barruan baitago.

-Era berean, derrigorrezkoak diren txosten sektorialak eskatu dira eta eman diren txostenen sintesi bat dago jasota espedientean. Tratamenduari dagokionez, adierazi behar da txostenetan agertzen diren eta juridikoki lotesle izateagatik

noviembre de 2008.

Mediante Resolución de la Alcaldía de fecha 2 de febrero de 2009, se acordó ampliar el plazo de información pública del Avance hasta el 9 de marzo de 2009. El anuncio de este acuerdo aparece publicado en el Diario Vasco de fecha 5 de febrero de 2009. Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 6 de febrero de 2009 y B.O.P.V nº 36 de fecha 20 de febrero de 2009.

-Se ha dado traslado del acuerdo de exposición pública del Avance a los Ayuntamientos colindantes sin que hayan presentado escritos al respecto.

-En paralelo al inicio del proceso de información, se puso en marcha un plan de participación ciudadana que se basó fundamentalmente en la apertura de una exposición de las propuestas contenidas en el Documento de Avance.

#### **Considerando los siguientes argumentos:**

-Una vez terminado todo este proceso de participación y de exposición pública y estudiados el conjunto de los escritos presentados por los ciudadanos, se ha elaborado, de acuerdo con los Criterios y Objetivos de la Ordenación que se proponen, una Memoria de Participación referida al tratamiento de las sugerencias presentadas que queda incorporada al expediente y forma parte de la propuesta de acuerdo.

-Habiéndose solicitado asimismo los informes sectoriales preceptivos, consta en el expediente un Informe en el que se recoge una síntesis de los que han sido emitidos. Respecto de su tratamiento indicar que las determinaciones que sean obligatorias de los informes por ser

derrigorrezkoak diren zehaztapenak zuzenean ezarri beharko direla Planean eta plana dagozkion alderdietan aldatu beharko dela.

Gomendio gisa adierazitako gaien kasuan, eta Aurrerakina informatu duten erakundeen izaera sektoriala kontuan hartuta, beharrezkoa izango da adierazitako errekerimenduak edo baldintzak kokatzea, planari interpretazio egokia ematen ahaleginduz eta aipatutako txostenetan adierazitakoa justifikatuz.

-2009ko martxoaren 17ko datarekin Ingurumeneko Sailburuordetzak (Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazioa eta Kontrolerako Zuzendaritza) ebazpena eman zuen, zeinaren bitartez Ingurumen Inpaktuaren Aurretiko Txostena formulatzen baita. Txosten honen inguruko balorazioa egingo da hasierako onespun dokumentua egiteko. Bertan aztertu eta justifikatuko dira Plan Orokorrean azkenean hartuko diren erabakiak, harekin lotutako aspektu bakoitzaren inguruan.

Otsailaren 27ko Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorrak adierazten du planak onesteko ardura duten ordanoek Ingurumen Inpaktuaren Txostena kontuan hartu beharko dutela., eta hartutako erabakia ez badator bat txostenaren edukiarekin, arrazoitu egin beharko dela.

-Udal Plangintzako Aholku Kontseiluaren Araudiaren 5. artikuluan ezartzen denaren arabera, *Aholku Kontseiluak Aurrerakina jendaurrean jartzeko epea amaitu ondoren, eta irizpidea berretsi eta hasieran onetsi aurretik egin beharko ditu nahitaezko txostenak.*

Plangintzako Aholku Kontseiluak 2009ko azaroaren 4an eta abenduaren 16an egindako bilkuretan bi erabaki hartu zituen

consideradas jurídicamente vinculantes, deberán incorporarse directamente al Plan y modificar éste en lo que proceda.

En el caso de las cuestiones señaladas como recomendaciones, y dada la naturaleza generalmente sectorial de los distintos organismos que han informado el Avance, será necesario enmarcar los requerimientos o condicionantes señalados, tratando de dar en el Plan la adecuada interpretación y justificación de lo expresado en dichos Informes.

-Con fecha 17 de marzo de 2009, se dicta Resolución de la Viceconsejería de Medio Ambiente (Dirección de Planificación, Evaluación y Control Ambiental) por la que se formula Informe Preliminar de Impacto Ambiental. Este Informe será objeto de la correspondiente valoración para el documento de aprobación inicial en el que se analizará y justificará las decisiones que finalmente se adopten por el Plan General respecto de cada uno de los aspectos relacionados en el mismo.

La Ley 3/98, 27 de febrero, General de Protección de Medio Ambiente señala que el Informe de Impacto Ambiental deberá ser tenido en cuenta por los órganos responsables de la aprobación de los planes. Cuando la decisión adoptada discrepe del contenido del informe deberá ser motivada.

-De conformidad con lo dispuesto en el artículo 5 del Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento, *la emisión de los informes preceptivos del Consejo Asesor deberá realizarse tras el plazo de información pública del Avance y antes de la ratificación de criterios y aprobación inicial.*

El Consejo Asesor de Planeamiento en sesiones celebradas los días 4 de noviembre y 16 de diciembre de 2009, adoptó sendos acuerdos, emitiendo

eta Txostena eman zuen, espedienteen dagoen zertifikazioaren arabera.

**-PLANGINTZAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK** Dokumentua erredaktatuta, Plan Orokorraren Berrazterketaren hasierako onespenerako dokumentua erredaktatzeko.

Aipatutako Irizpideen eta Helburuen elaborazioan hauek kontuan hartu dira: Aholku Kontseiluak emandako txostena, aurkeztutako iradokizunak, emandako txostenak, Udalak egindako hausnarketak eta gomendioak; emaitza aipatutako dokumentua izan delarik, zeinak Aurrerakinaren proposamen teknikoa *osatzen duen, ñabardura ematen edo zuzentzen duen*, dokumentuan bertan adierazten den bezala.

Irizpideen eta Helburuen dokumentua egiteko Plangintzaren Aurrerakinaren dokumentuaren Txostena eta Planeamendu Fitxetan sartzan diren irizpide, helburu eta hirgintza-zehaztapen multzoa abiapuntu hartu dira, geroago egin diren aldaketekin. Irizpideak eta Helburu Orokorrak izeneko zatietan dago banatua, hauek gaiaren eta Eremuko Irizpideen arabera daude sailkatuak, lurralde eremutan taldekatuak.

Irizpide Orokorrak hiriaren ereduaren ingurukoak dira, baita urbanizagarria ez den lurraldearen trataeraren, azpiegituren sarren tratamenduaren, etxebizitzaren, jarduera ekonomikoen eta Olaberria bailararen tratamendu zehatzaren ingurukoak ere.

Eremuko Irizpideak hiriaren alde desberdinetarako kontuan hartu beharreko zehaztapenei buruzkoak dira, gune eta auzo handitan daude banatuak: Mendebaldea, Katea, Iparra, Urdanibia, Erdialdea, Erdialde-Ekialde, Behobia, Meaka eta abar.

Informe, según certificación que consta en el expediente.

-Se ha redactado el Documento de **CRITERIOS Y OBJETIVOS DE PLANEAMIENTO** para la redacción del Documento para la aprobación inicial de la Revisión del Plan General.

En la elaboración de dichos Criterios y Objetivos se ha tenido en cuenta el Informe emitido por el Consejo Asesor, las sugerencias presentadas, informes emitidos, reflexiones y recomendaciones realizadas en el Ayuntamiento, dando como resultado el citado documento que *complementa, matiza o rectifica*, según se especifica en el mismo, el conjunto de la propuesta técnica del Avance.

Este documento de Criterios y Objetivos está realizado tomando como base de partida el conjunto de criterios, objetivos y determinaciones urbanísticas incluidas en el documento de Avance de Planeamiento en su Memoria y Fichas de Planeamiento, con las modificaciones posteriores correspondientes, y se divide en Criterios y Objetivos Generales, organizados temáticamente y en una serie de Criterios Zonales agrupados por zonas territoriales.

Los Criterios Generales se refieren al modelo de ciudad, al tratamiento del Suelo no urbanizable, al tratamiento de las redes de infraestructuras, a la vivienda, a las actividades económicas y al específico tratamiento del valle de Olaberria.

Los Criterios Zonales se refieren a las determinaciones a tener en cuenta para las distintas partes de la ciudad, divididas en grandes zonas y barrios: Oeste, Ventas, Norte, Urdanibia, Centro, Centro Este, Behobia, Meaka, etc.

-De conformidad con lo establecido en el

-Ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 90. artikuluan xedatutakoaren arabera, Aurrerakina eginda, jendaurreko erakusketaren eta publikoaren zein instituzioen parte-hartzearen emaitza ikusita, Udalak erabakiko ditu plan orokorraren aldaketa erredaktatzeko oinarriak izango diren irizpideak eta helburuak.

-Espedientea Hiri Garapena, Etxebizitza, Obra Publikoak eta Ingurumeneko Batzordearen 2009eko martxoaren 25ko bilkuran aztertu ondoren.

Ikusita espedientean jasota dagoen dokumentazioa.

#### **Udal Batzarrak zera erabaki du:**

**1.- Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Berrazterketaren Aurrerakina jendaurreko izapidetzan egindako iradokizunen berri ematea..**

**2.- Irzpidetak eta Helburu Orokorrak onestea. Hauek Irungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Berrazterketaren Dokumentua idazteko oinarria izango da”.**

**DEKRETUA:** Aurreko erabakian agindutako guztia beteko zaie interesatuei.

Hiri honetako Udal Txit Goreneko Alkate-Lehendakari jaunak agintzen eta sinatzen du, Irunen bi mila eta hamarreko apirilaren 7an

ALKATEA/EL ALCALDE,

artículo 90 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, elaborado el Avance, el Ayuntamiento, a la vista de esta exposición y de la participación pública e institucional, adoptará los criterios y objetivos generales que servirán de base para redactar el plan general .

-Examinado el expediente en la sesión de la Comisión de Obras Públicas, Desarrollo Urbano, Vivienda y Medio Ambiente de fecha 25 de marzo de 2009.

A la vista de la documentación obrante en el expediente.

#### **El Pleno de la Corporación acuerda:**

**1º.- Informar las sugerencias formuladas durante el trámite de exposición pública del Avance de la Revisión del Plan General de Ordenación Urbana.**

**2º.-Aprobar los Criterios y Objetivos Generales que servirán de base para la redacción del Documento de Revisión del Plan General de Ordenación Urbana de Irun”.**

**DECRETO:** Se dará cumplimiento a los interesados de cuanto ordena el acuerdo anterior.

Lo manda y firma el Señor Alcalde-Presidente del Excmo. Ayuntamiento de esta Ciudad de Irun, a 7 de abril de dos mil diez, certifico

IDAZKARIA/EL SECRETARIO,



**DILIJENTZIA:** Data honetan  
betetzen da agindutakoa, ziurtatzen dut.

**DILIGENCIA.-** Con esta fecha se  
cumple lo ordenado, certifico